

STEILASEK GIZARTE EKIMENEN ERTEAK SALATZEN DITU

Hezkuntza Sailak joan den astean jakinarazi zuen bezala: "Eskola-jarduera aldi baterako eteteko aldia, ez da eskola-jarduera eteteko aldi gisa ulertu behar"; beraz, ikastetxeek irekita jarraitzen dute, eta langile guztiek beren ohiko ordutegian lan egin behar dute.

Enpresek beren langileen osasuna babesteko neurriak hartu behar dituzte, beraz, telelana bideratu behar diete bai irakasleei, hezkuntza-laguntzako espezialistak eta haur-hezkuntzako lehen zikloko langileak barne (ikastetxe publikoetan eta haur-eskolen partzuergoan egiten ari diren bezala), bai administrazioako eta zerbitzuetako langileei, ahal den guztietan. Hala ez bada, lanpostuetan babes neurriak aplikatu behar dira, kutsatzeak saihesteko.

Hori hala izaten ari bada ere Gizarte Ekimenerako Zentro gehienetan, STEILASEk salatu behar du sektoreko enpresa batzuetan legez kanpoko edo neurrigabeko neurriak hartzen ari direla, lan baldintzak aldatuz edo aldi baterako langabeziara bidaliz bertako langileen zati bat.

Enpresa batzuek aldebakarrez inposatu nahi dituzte gerora berreskuratu beharreko oporraldiak edo ordu-poltsak. Langileak neurri horiekin ados ez badaude, ez ditu onartu behar. Jarrera hori oso larria da, eta Steilas prest dago langileen lan egutegietan aldaketak ezartzen dituzten ikastetxeen aurka legezko neurriak hartzeko.

Gainera, sektoreko ikastetxe batzuek haur-hezkuntzako lehen zikloko langileei, administrazio eta zerbitzuetako langileei eta Lanbide Heziketakoko irakasleei jakinarazi die aldi baterako ERTEak aplikatuko dizkietela ezinbesteko arrazoiengatik, koronabirusagatiko alarma-egoeraz aprobetxatuz. Horrek aldi baterako langabeziara joatea dakar, askoz gutxiago kobratuz.

STEILASEk oso larri ikusten du enpresak egoerak eskatzen duen mailan ez egotea eta osasun alarmako egoera baliatzea kutxa egiteko, diru laguntzak eta familien kuotak jasotzen jarraitzen baitute. Berritri diogu hezkuntza-zerbitzua ematen jarraitzen dela eta zentroak irekita daudela.

Sektoreko patronalei eskatzen diegu egoera horretan busti daitezela, beren elkartekideek legez kanpoko edo desegokiak diren neurri horiek aplika ez ditzaten.

STEILASEk, beste behin ere, gizarte-ekimenerako ikastetxeetako langileen duintasuna, haien lan-baldintzak eta haien osasuna arriskuan ez jartzeko beharrezko babesak defendatuko ditu.

www.steilas.eu